




Patxi Zubizarreta - Elena Odriozola

1. Singin' in the rain



SEI HILABETE itxaron behar izan zituen Usoak urtebetetze eguneko oparia jasotzeko. Aitak urtarrean gustu-gustuko bidaia bat egitea proposatu zion («Ekainaren amaieran Eskandinaviara joango gara.

Beti desiratu izan duzu elurpean bizi diren herrietara bidaiatzea, ezta?») eta, orain, ikasturtea amaiturik, beti desiratu izan zuen gisara, Osloko aireportuan lurreratzen ari ziren.

Udako solstizioa, hau da, lurralde haietan *gau zuria* esaten diotena igaro berria zen eta, goizaldeko ordubata izan arren, zerua ez zegoen guztiz ilun eta halako argitasun kobrekolorea zerion.

Aireportuaren kanpoaldean, bi autobus zeuden zain eta Usoak han ezagutu ahal izan zituen, lehen begi kolpean, bidailagun izango zituenak, tartean bera baino gaztetxoagoa zen neska bat eta adinkidea zirudien mutil bat. Baina bidailagunek ere Usoa eta bere familia ezagutu ahal izan zituzten, eta batez ere amak besoetan lokarturik zeraman Bixintxori begiratzen zioten.

—Bai bitxia, Luzia —entzun zion Usoak, autobusean eseri zirelarik, aurreko bikoteari—. Gurasoak esnea baino zuriagoak dira eta begira nolako alaba atera zaien.

—Ez esan txorakeriarik, Adolfo. Umerik ezin izan eta adoptatu egingo zuten. Seguruenik mutikotxoa ere adoptatua izango da. Gaixoak...

Usoa urduri baino urduriago jarri zen. Begiak itxi zituen, indarrez, eta senar-emazteek zerbait txarra jaten zutela imajinatu zuen, eta oporraldia ospitalean igaro behar zutela. Baina ez zuen beste gaiztakeriarik imajinatzerik izan, zeren une hartantxe gidaria mikro batetik hizketan hasi baitzen.

Taldearen gidariaren izena Olav zen («Ze originala», entzun zuen bere baitan, Iratik belarrira hitz egin izan balio bezala, eta segidan *txanbelin* eta *zirats* hitzak entzun zituen —GHP: apaina, liraina, galanta—), eta autobusarena Martin. Eta, Usoak pentsatu eta desiratu bezala, Olavek bidaia zoragarria eta kilikagarria egingo zutela hitz eman zien.

Gau hartan desorduetan eta desargietan oheratu baitziren (goizaldeko hirurak aldean eguna argitzen hasia zen eta hoteleko leihoetan ez zegoen gortinarik), Usoak apenas egin ahal izan zuen lorik. Gainera, seietan alboko gelako gizona izugarri ozen, izugarri traketak, eta izugarri ingeles kaxkarrean kantatzen hasi zen. Eta Usoak are amorratio handiagoa hartu zuen lehengo gizonari, Adolfori, antzeman zionean...

Gero, Usoa bera ere bustialdi bat hartzen hasi zenean, txartel bat ikusi zuen duxtako telefono alboan: *Most Norwegians sing when they take a shower. Sing along!*, eta horren ostean *Singin' in the rain* kantu ospetsuaren letra zetorren (or-

duan ulertu zuen Adolfori zerk piztu zion kantatzeko gogoa). Eta Usoak lasaitua hartu zuen duxtatu bitartean, eta letrari erreparatu zion, bereziki *The sun's in my heart and I'm ready for love* zatia (eta hitz haiek oraingoan Manexek xuxurlatzen zizkiola sentitu zuen).

Alabaina, bidaiaren hasiera berriro okertu zitzaion gosaltzera jaitsi zirenean. Alde batetik, kafea eta tea nahi bezainbeste bazegoen ere, ez zuen ez esne berorik ez txokolaterik topatu. Eta, bestera, Adolfo eta Luzia alboko mahaian eseri zitzaizkien, eta ezin izan zioten beren jakingo-seari eutsi. Aurrena beren burua aurkeztu, eta hurrena bidaiaren gorabeherak aipatu zituzten, baina azkenik honela galdegin zuten:

—Egia esan, neskailak amaren antza du, baina azalaren kolorea da harrigarriena.

—Nire birraitona bat beltza izan zen eta hara non agertu zaizkigun orain haren geneak —erantzun zion Usoaren amak, aurpegian irribarre behartua alderik alde zabaltzen zitzaiola. Usoari barre algara bat eskapatu zitzaion, baina nolabait disimulatu ahal izan zuen une hartan Bixintxok zera esan zuelako:

—Ama, zuk ume beltz bat jaiotzea nahi dut, Usoa bezalakoa.

—Txokolatea, beltza nahiz zuria izan, biak dira gozoak —jarraitu zuen Luziak, Bixintxori burua laztantzen ziola, eta Usoak arbelean klarionak tarteka atera ohi duen kirrinkaren hotzikara sentitu zuen, eta, hortz artean, Luzifer deitu zion emakumeari.

Hori guztia dela eta, Oslon primeran ibili ziren, primerako eguraldiarekin, baina etengabe, euriaren ihesi nola, halatsu ibili behar izan zuten bikotearengandik urrun. Eta batez ere Holmenkollenn-eko eski tranpolin erraldoiak harritu zituen, gezurra baitzirudien inork handik salto egitera ausartzea. Baina denek are gehiago harritu nahi zuten, eta horrexegatik hartu beharra zeukaten, arratsaldean bertan, Altarako hegazkina, han gauerdiko eguzkia ikusteko...

Hala bada, eguerdian kai aldeko itsasontzi-jatetxe bikindar batean bazkaldu ostean, hotele-
ra itzuli, gutxieneko ekipajea prestatu, eta lauetarako autobusean zeuden. Goizago edo geroago, bidaiari guztiak bildu ziren bertara, guztiak Adolfo eta Luzia izan ezik...

Bidaiariak larritzen hasi ziren eta Martin gidaria «Txutxa! Vaya par de huevones» esaka zebilen eta Olavek, hoteletik itzuli zenean, argitu zuen bikotearen gelara, deitu, behin baino gehiagotan deitu zuela, baina inork ez ziola erantzun.

—Bost minutu barru irtengo gara, bestela hegazkina galduko dugu —erabaki zuen Olavek, eta Usoak pentsatu zuen beharbada senar-emazteek zerbait txarra jango zutela, eta ospitalera eramango zituztela. Eta ahopeka hasi zen *Singin' in the rain* kantatzen.

